

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Martxoak 6, 141. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



PETRA GARCIA
"Nire semea ez da
trafikatzalea,
drogazalea baizik"

Emakumearen borroka

Mahaingurua




HOTZ - BERO

KLIMATIZAZIOA


Maialako Errabala 33- etxebehea,
Tfnoak: 79 70 98 eta 77 04 83
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA



ehengo pisua eta hirugarrena, edo nork daki, igoai izango da hamar pisutik gorako etxe blokea ere. Neguko goiz hotz bat imajinatzen dut. Erosketak, bazkaria eta eguzkitartea aprobeixatuz arropak lehortzen jarri beharra. Isilpeko lana, aldizkarietako azalean ageri ez dena.

Lehortu direnak batu egin behar. Geranioak



Jabier

inauzten ere lanik ez sasoi horretan. Etxea erostean eguzkibegia zela esan zioten, udan eguzkia hartzen egoteko modukoa. Baina ez du horretarako asko erabili, auzokoarekin hitz batzuk gurutzatzeko asko jota ere. Eta arratsaldean ere umeen bila joan beharra dago. Plantxa, jostekoa, afariarekin hasi behar... Emakumearen eguna...

Elkarlanari ekinez...

BI AUKERA BERRI HAUR HEZKUNTZAN



- 4 hilebetetatik aurrera
- San Josepen
- Ordutegi eta egutegi zabala

San Josepe z/g eta J. L. Iñarra, 30-32
Tfnoak: 79 0102 / 79 71 22



- 2 urtetik aurretik
- Auzoetan (Musakola, Olarte, Uribarri)

Gazteluondo, 4
Tfnoak: 79 26 40 / 79 41 22

MATRIKULA EPEA ZABALIK!

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Publizitatea eta harpidetzak:

Kepa Olliden. Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiroko Eskola, Juan Bautista Agorria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurjaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Zoragarrizko mundu berri bat

Zenbait egunetan zehar mozturrotuta ibili ondoren, ohizko errealitate gordinera itzuli gara, mantso mantso. Ironiko dirudien arren, gure gizarte hau txantxaren beharrean aurkitzen da, barneko ezinaren estalki bezala. Baina horrelakoa da gure patua eta, lerro hauen apaltasunetik egiaztapena azpimarratzea, besterik ez dagokit. Alaitasunezko tanta batzu ere ez datozkigula gaizki esan liezaidake norbaitek, azalezko alaitasuna izan arren.

1992ko lehen Ihauteriak erre ditugu. Aurten gehiago dago, hamabi hilabetetan ongi sailkatuta. Batzu posizioak hartzen ari dira, Grand Prix-eko norgehiagokan arituko balira bezala. Guztietan hartu nahi dute esku zuzena, ariketa horretan bizitza doakiela dirudielarik. Harrituta geratzen naiz, Sevilla, Madril eta Bartzelonako asmoak azaltzen dituzten lagunaren kopurua ikusita. Ez daukat ezer hiru hiri horien kontra: bakoitzak bere estiloan nolakotasun eta erakartasun berezia badu. Baina espainiar iraultza orojaletik, hiritar-goa txutxeriazko kontsumo alienagarri bultzatzen ari denean, borondatezko itsuarena egiteari oker derizkiot.

Europa osoa merkatu bakarrek baldintza erabakiorretara gertutzen eta ohitzen ari den unean, hemen pandereta edota txistuarekin ari gara. Inork gutxi hartu du seriooki, benetan, gure etorkizuna jokutzen ari garenik. Ezer gertatuko ez balitz bezala dihardugu... komunikabideek era guztietako mezu larrosantzerakoak zerbitzatzen dizkigutelarik. Mexikon ikaragarri ondo hartuko omen diuzte, antza, aurrerantzeko gure esportazioak. Horrela jakinerazi digute, behintzat, hara joandako "aintzindariak". Konponduta gaude, gure industriaren etorkizuna He-goamerikan bilatu behar badugu!

1992ko Europak botere ekonomikoa gehituko dio kultur eraginari. Bata eta bestea ezin bereiztu. Horrela bakarrik lortu da historian zehar edozein herriren garapen orekatua. Artifizialtasunari, lehenago geroago baino, moztorra jausten zaio, egiazko begitarrea azaleraziz. Guk, hemen, eraikina egiteko daukagu oraindik. Areago, jasotzeko asmorik ote dagoen zalantzan ipiniko nuke. Dena den, kasurik onenean, planoak marraztu gabe daude.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

comercial
san juan

Garibal, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


MUSAKOLA
OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezio, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Vade retro, Benetton?

Benetton firma italiarraren aurtengo kanpainak jende asko sumindu du, HIESdunak eta gaitz horren kontra ari direnak batipat. Irakurri besterik ez dago aldizkari honetan joan den asteko alean Jon Salaberriren eritzia horretaz jabetzeko.

Nik beste modu batean ikusi dut kanpaina, baina HIESdunaren argazkiari lotuta, Jon Salaberrik mezu desegoki eta nahasgarriak zabaltzen dituela dio. Horra niri argazki horrek zer esaten didan. HIESa gure artean dugun arazoa dela eta, oraingoz, heriotza dakarrela, askotan agonia latzen osteko heriotza. Eta, azkenik, HIESdunarentzat oso inportantea izan daitekeela, unerik zailenetan, etxekoen berotasuna eta maitasuna sentitzea.

Eskandalua ez bide dator hortik, zeren erretrato hori lehen ere argitaratutakoa bait da eta inor ez zen asaldatu orduan. Koska bikoitza da, nire ustez. Batetik, beren bizimodua ia ezkutuaren iluntasunean eramaten ohituta zeuden zenbait gizatalderen gainean atentzio publikoaren argitasun zorrotza hedatu duela. Ilunbetan ohitutako begiari mingarri egiten zaio bapateko argitasuna. Horrek, ordea, ez du esan nahi argia txarra denik. Alderantziz, esango nuke, atentzio horrek arazoaz jabetzera bultzatzen bagaitu, ongi etorria izan dadila. Baina, eta hemen dago bigarren koska, argazki horretan marka komertzial bat agertzen da, Benettonena hain zuzen. Jon Salaberrik dioenez, salagarria da hori "gaixotasuna dela medio irabazi finantziarioak atera nahi ditu"elako eta HIESdunen aldeko laguntzarik eman nahi izan ez delako. Gaixoaren familiarekin bete

beharreko guztiak bete ondoren, Benetton libre da bere diruaz nahi duena egiteko. Kontrakoa, abade eta monjaren argazkia atera zuelako eliza katolikoari katedral bat eraiki edo beste konpentsazioren bat eman behar diola onartzea izango litzateke.

Kasu honetan, gure tabu eta bildurren gainetik, bere publizitatea zuzen eta ausardiaz erabili duen saltzaile baten aurrean gaudela iruditu zait. Guzti horretaz gain, kanpaina horrekin dirua irabazten duela? Enpresen helburuetariko bat horixe da.

JOXE ARANZABAL

Rugbiari bai

Aspaldi honetan, jendearen artean kirol zaletasuna gehitu da. Arrasaten, kirol asko egon arren, gaur rugby-ari buruz hitzegitea pentsatu dut.

Arrasateko rugby taldekoak gure laguntzaren premian daude, bai jokalariei edota laguntzaile premian. Gaur egun duten asmorik nagusiena, ume talde bat osatzea da. Lehenengo pausua emanda dago eta mutikotxoaren artean arrakasta handia izan du. Probintzia mailan, eskola arteko liga bat prestatu dute, orain arte 40 bat neska-mutil aurkeztu dira eta aipatzekoa da batez ere haurtxo hauek oso alai ikusten ditugula. Hitz hauen bidez, gurasoei zuzentzeko asmoa dut, euren seme-alabak, rugby-an jolastera anima ditzaten.

Ez beldurrik izan, lesio aldetik, jakin arazten dizuet, beste kirol batzuetan baino gutxiago daudela estadistikek diotela. Hala bada, animo.

Aurrera arrasatearrak!


KAROL A.

MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

Etxeko eginbeharretan hartzen duzu parte?



Manuel
(Langilea)

Bai, lagundu bai baina andreak egiten du lan gehiena. Erosketak eta holako gauza txikienetan laguntzen diot.




Imanol Zeziaga
(Jubilatua)

Bai, gainera batzutan tokatzen zait. Andreak denetara heldu ezin duenean, lagundu egin behar.



Jose Ramon Mendizabal
(Langilea)

Noizbehinka bakarrik, baina orohar gauza gutxi egiten dut.



Jose Manuel Mendi
(Zurgina)

Ez, ez askotan. Hobe amak edo arrebak egiten badu eta gainera ondo iruditzen zait, ni baino denbora gehiago dute eta.




Joseba Korta
(Ikaslea)

Ez, bakarrik basura jeisten eta holako gauzetan. Beharbada ez dago oso ondo baina...



Pedro Mari Balanzategi
(Langitea)

Ez. Derrigorrezkoa denean bakarrik, baina bestela amak egin dezala.



TXOMIN ITURBE
ETAko Eusko Gudaria

1934ko abenduaren 7an Arrasaten jaio
1987ko otsailaren 27an Aljeria hil.

• OMENALDIA • Martxoak 7

• Arratsaldeko 7.30etan

HERRIKO PLAZAN KONTZENTRAZIOA.


• Gaueko 10.30etan

MITIN-JAIALDIA Iturripeko kiroldegian

Soinulariak: Tapia - Leturia eta Kaxiano

Bertsolariak: Amuriza eta Lazkano

Hizlariak: Karmelo Landa (Europarlamentarioa)
eta Xabier Zubizarreta (Alkatea)



SARRERA DOAN!

HERRI BATASUNA

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



6

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Asesinato en el callejón del arco iris" (5-7.30-10).
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gauez: Guallar, Bergara.

7

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Hulk Hogan" (12) "Dos duros sobre ruedas" (5-7.30)
- Umeentzako bideo-emanaldia "Polizi akademi eroa II", Monterronen arratsaldeko 4etan.
- Andaluzia egunaren ospakizuna Musakolako kirolegian.
- Txomin Iturberen omenaldia: arratsaldeko 7.30etan herriko plazan kontzentrazioa. Gaueko 10.30etan Iturripen Tapia eta Leturia, Kaxiano, eta Amuriza eta Lazkano bertsolariak.

Kirol Agenda

Rugbya

- Arrasate eta Getxoko taldeen arteko partidua, Garagartzako rugby zelaian, larunbatean arratsaldeko 4.30etan.

Futbitoa

- Zaldibarko futbito txapelketaren barruan hamabi partidua larunbata eta igande goizean.

- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gauez: Estella, Bergara.

8

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Hulk Hogan" (12) "Dos duros sobre ruedas" (5-7-9.30)
- Emakumearen nazioarteko eguna: arratsaldeko 7.30etan manifestazioa, Egizan eta Emakumeen Asanbladak deituta.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gauez: Estella, Bergara.

9

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Dos duros sobre ruedas" (7-9.30)
- Análisi bioenerjetiko ikastaro praktikoa, AEDn arratsaldeko 4etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gauez: Mozos, Bergara.

10

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Dos duros sobre ruedas" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Magdalena. Gauez: Camacho, Bergara.

11

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gauez: Puy, Bergara.

12

OSTEGUNA

- Gantxillo ikastaroa, AEDn arratsaldeko 3etan.
- Arenas-en pintura erakusketaren azken eguna Monterronen.
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gauez: Guallar, Bergara.

Saskibaloia

- Centraljet eta Muebles Martin taldeen arteko partidua, Iturripen larunbatean arratsaldeko 6etan.

Pilota

- Euskal Ligaren barruan Arrasate eta Amezketa pilotarien arteko partidua, Iturripen larunbatean eguerdiko 12etan.

Ikastaroak

• Masaia-yoga

Arrasateko Yoga elkarteak antolatuta yoga eta masai ikastaro bat emango da martxoaren 19, 20, 21 eta 22an, San Jose zubian. Elgoibarko San Pedro auzoan izango da, Aubixa auzoan. Ikastaroan gorputz osoan masaia ematen erakutsiko da eta yogaren oinarrizko ariketak eta meditazioa. Informazio gehiago lortzeko eta izena emateko dei ezazu telefono honetara: 79 35 76.

• Ulerkuntza eta sormena

Martxoaren 13, 14, 27, eta 28an ulerkuntza eta sormena izeneko ikastaroa emango da Bergaran. Matrikula epea martxoaren 11n bukatzen da eta Bergarako UNEDeko Filologia Departamentuan egin dezakezue.

34ko Kintoak

• Bazkaria

Martxoaren 28an, 1934. urteko kintolagunen bazkaria izango da. Emakume zein gizonezkoak konbidatuta zaude. Ospakizuna meza batekin hasiko da, eguerdiko ordubatean Frantzizkotarren elizan. Gero bazkaria izango da Udalpe Elkartean. Bertan parte hartzeko interesa duzuenok 24a baino lehen izena eman behar duzue Bengoa tabernan edo Zangitu paperdendan.

Hitzaldia

• Astrologia

Datorren ostiralean, 13, arratsaldeko 7.30tan astrologiari buruzko hitzaldia izango da Bergarako Kultur Etxean. Tratutuko diren gaiak ugariak izango dira: reflexoterapia, masai tera-



Andaluzia Eguna

Kiroldegian, larunbatean egun osoz

"Al Andalus" elkartekoez bihar, hilak 7, Musakolako kiroldegian Andaluzia Eguna ospatuko dute. Goizeko hamaiketan aurkezpen txiki bat egin eta segidan, umeen Sevillana lehiaketa burutuko da. Ondoren, *Lore-Gazteak*, Donostiako Galizia etxearen dantza-taldeak, Zarauzko Extremadura etxeko dantza-taldea eta *Sueños de Andalucía* taldeen emanaldia ikusteko aukera izango da.

Goiz partekoari horrenbestez emango zaio amaiera, eta arratsaldeko 3.30etan umeentzako jolasak izango dira, ondoren pailazoak. 6etatik 8etara bitartean, talde desberdinen ekitaldiak izango dira: "*Alegria de la sierra*" eta Al-Andaluseko neskatalen koruarena, "*Corazón de Encina*"ko koruak etab.

Behin folklore giroko saioak bukatuta, sari banaketatxo bat egingo da eta afaria gero. Badirudi afarian 500 pertsona inguru bil daitezkeela, orain arte 400 txartel baino gehiago saldu dira eta. Afalosterako "*Nervion*" orkestarekin dantzaldia, goizaldera arte noski.

peutikoa, kirol masaia, akupuntura, astrologia...Ikastaroaren emalea Esenio Gabinetea da.

• Unibertsitatea

Datorren asteazkenean 11, karrera unibertsitarioei buruzko hitzaldia emango da ALMENEko Aretoan. Arratsaldeko 6.30tan izango da. Hizlaria Jose Ignacio Mir, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea izango da.

Mendia

• Federatu txartela

Besaide mendizale elkar-teak mendi federatu txartel berriak atera ditu. Aurten, lehengo

aldiz txartel hoiak korreoz bidaliko dira. 2tik 8arte buzoietan izango dituzue eta zuzenbidea aldatzea nahi izanez gero, 7.30tik 8.30etara bulegotik pasa.

Omenaldia

• Jaialdi-omenaldia

Txomin Iturbe Argelian hil zeneko bostgarren urteurrena dela eta, Arrasateko Herri Batasunak jai giroko omenaldia antolatu du. Arratsaldeko 7.30etan herriko plazan egingo den kontzentrazioaren bidez emango zaie hasiera ekintzei. Gauean, berriz, 10.30etatik aurrera Iturripen Tapia eta Leturia

eta Xaxiano kantariak, Xabier Amuriza eta Lazkano bertsolariak. Ekintza politikoa ere burutuko da omenaldian zehar, Karmelo Landa europarlamentarioa eta Xabier Zubizarreta Arrasateko Alkatearekin.

Kultur astea

• Kultur astea Erguinen

Erguingo eskolak datorren astelehenean hasi eta larunbate kultur astea burutuko du. Astelehenean Pello Añorga, ipuin kontalaria izango da eta arratsaldeko 6.30tan Concha Fragoso orientatzaileak hitzaldi bat emango du gurasoei zuzenduta. Ostegunean, SS-77 taldeko Patxi Monterorekin hizketaldia, Arrasate Misikaleko musika emanaldia eta gurasoentzako hitzaldi izango dira. Astean zehar, Lorentxo Altuberen eskutik erakusketa izango da: txalaparta, adar, alboka eta tobera musika tresnei buruz. Gainera, kirol saioak eta jolasaldi bereziak ere egunero izango dira.

Liburua

• Almen 25

ALMEN ikastetxeko 25. urteurrena ospatzen dela eta liburu bat argitaratu da. Aurkezpena datorren osteguna 12an izango da, arratsaldeko 7.30tan Almenen bertan.

Erakusketa

• Pintura

Pasa den astelehenetik eta datorren astearteraino pintura erakusketa bat izango da Monterronen. Jose Arenas, Valladolideko margolaria da kasu honetan agertzaila. Eguneroko gauzak, basoak, kopak, botilak, pitxarrak, erropak... konbinatzen ditu, modu ezezagun batean agertuz.

“Kooperatiba bakoitzak bere aldetik jokatu du eta marken galera ikaragarri daukagu. Hor marka kopuruak gutxitzeko proiektu bat egin behar dugu indartzeko eta sektorearen arabera espezializatzeko. (...)


92a benetan konplexua izango da eta ez dut batere konfidantzarik gauzak agintariak dioten bezala gertatuko direnik. Nire ustez, orokorrean enpresariaren zeregina gerrikoa estutu, eta bere enpresa ahalik eta kosturik txikienean gestionatzea eta aguantatzea da. Egoera konplexua izango da guretzat ere datozen urteetan”.

(Javier Mongelosek otsaileko "RANKING" aldizkarian)

“Kuriosoa da euskal enpresen nola jartzen duten euren materiala hemendik kanporako ingurugiroa hondatzeko. Arrasateko Besaideren hainbat 'bulldozer'ek, kamioi flotaren laguntzaz lanean ziharduten Siako amildegia eta Gallego erreka bat egiten duten lekuan erreka magala urratzeko eta momentuz landareriak osatutako 250.000 m² eraman ditu aurrean, horrela errekaekin lotutako animalia-espezietan, horietako batzuk legeak espreski babestuenak, habitata deseginez. (...)

Balio beza testu honek Hueskako ekologistek gure solidaritatea adierazteko eta aldi berean 'Mendiur' inbiliaria eta 'Besaide' eskabadoreen lotsagabekeria eta aurpegi handia salatzen. Asko gara paraje eder hura maite dugun eskurtsiozaleak eta batez ere mendizaleak. Obra monstruoso horiek egin gabe gordeko al dute parajea”.

(Arrasateko Eki Ekologista Taldeak EGINen. 1992-III-4)




Urkuluko ura fluoratzea bai?

Eguzki taldeak hitz hauen bidez bidez fluorazioaren kontrako jarrerara adierazi nahi du. 30-40 urte direla Estatu Batuetako umeen kariesak aztertuz, ur fluoraturiko herrialdeetan portzentaia txikiagoak aurkitu ziren. Orduetik Europako herrialde batzuetan fluoraziorako teknika jarri da martxan, Estatu Espainiarrean ere bai. Kontrako jarreraren arrazoiak honela labur daitezke: alde batetik medikuntzak ematen duen arrazoiak hartuz, kariesean eragin onak izan dezake fluorak baina etika aldetik fluorazio honetan indarrezko medizina ezartzen zaigu, hau da manipulatzen egiten gaituzte osasunerako ona dela esanez. Modu berean mediku batek frogatzen badu beste edozein produktu bihotz edo gibelerako ona dela, beharbada hori ere sartuko digute pixkanaka. Horregatik, argi utzi nahi dugu ura gauza naturala dela eta manipula ezina. Fluorazioarekin medizina bat hartzeko orduan, ez dugu aukeratzeko posibilitaterik.

Urkuluko kasua hirugarrena da estatu mailan, Añarbe eta Gazteizen atzetik. Frogak martxan daude fluorazioa hasteko, planta bereziak jadanik ezarrita daude. Honen aurrean informazio banaketa eskatzen dugu, gizarteak jakin dezan fluorak zer eragin izan dezakeen.

FELIX ARRIARAN,
EGUZKIKO PARTAIDEA.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



PINTURAK eta
PAPERZTAPENAK

Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak


Z a r r a o a

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

Eskoriatza

• I. Mendi astea

Alex Ezpeleta eta Mikel Urrutiaren omenez, mendiko astea antolatu da datorren 9tik 15era bitartean. Astelehenean *Natura* kolektiboaren eskutik hitzaldia izango da piraguismo, trabesia eta espeleologia gaietaz. Asteartean diapositiba emanaldia Eskoriatza-Shisha *Pagma 91*ri buruz. Asteazkenean gauza bera baina Eskoriatza-Akonkagua 92 ari buruz. Martxoak 12an osteguna Aranzadi taldearen eskutik "Eskoriatza inguruko aztarnategiak" gaiari buruzko hitzaldia izango da. Ostiralean Atxabalta-Makalu 91ri buruz diapositiba emanaldia eta bukatzeko igandean Uxarren omenduen ohorez eraikiko den txokora irteera egingo da.



Gatzaga

• Kultur astea

Udaletxeko Kultura Batzordea eta Herriko Kultur Taldeak antolatuta, datorren 9an hasi eta 15era arte Kultur Astea ospatuko da bertako Kultur Etxean. Lehen hiru egunetan, asteazkenean arte, hitzaldiak izango dira. Lehena, astelehenean *Prentsa lokalaren sustapenari* buruzkoa izango da Inaxio Garro hizlari. Asteartean *Pala jokoa eta frontoi giroari* buruz beste hitzaldi-solasaldi bat burutuko da Jon Torre Euskadiko txapelkunarekin. Eta asteazkenean *Makaluko igoerari* buruzko diapositiba emanaldia izango da Ifurrategi anaiekin. Ostegunean, berriz, "El oso" filmea emango da. Ostiralean, *denbora librearen erabilpena* gaitzat hartuz, mahai inguru bat izango da eta ondoren herri afaria. Larunbatean, briska eta mus txapelketa ospatuko da eta igandean astea bukatzeko *mendi irteera* antolatu da Deba ibaiajaiotzen den lekura.

Aramaio

• Koto komisioa

Kotoaren arau eta bazkideen eskubideak gordetzeko komisio bat sortu da. Hiru taldekidez osatuta dago: *Juan Arriolabengoa Lasaga, Martin Etxabe Etxeberria eta Aitor Aspe Aspe*.

• Uren klorazioa

Untzila, Altxa eta Etxaguengo auzoetan kloraziorako instalazio berriak jarriko dira. Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu ondoren, erantzun bezala 1.344.186 pezetako laguntza heldu zaigu.

Oñati

• Antzerkia

Ihauterien egitarauaren barruan gaur gaueko 10.30tan Santa Anan, *In Fraganti* antzerki obra aurkeztuko da. Emakumeek emakumeentzako idatzita dago eta aktoreen artean *Idoia Sagarazu, Olatz Beobide* eta *Ane Gabarain*. Zuzendaritzan *Edi Naudo*.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

ETXEPARE - BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50



Jon Belar hilik aurkitu

Joan den astearteko goizeko 8ak aldera, Martuteneko futbol zelaian Jon Belarren gorpua aurkitu zuten. Dirudienez, Jon Belarrek bere buruaz beste egin zuen, soka batetik zintzilik zegoen aurkitu zutenean eta. Zinemagintza eta pinturan diharduen arrasatear honek 57 urte zituen; Arrasaten denbora askoan bizi izan eta gero, orain Martutenen bizi zen, pinturak egitetik batez ere. "Katuska" eta "El Caserio" zarzuelak eta "Ander eta Yul", "El reino de Victor" eta "Terranova" bezalako filmeetan hartu zuen parte. Azken aldean ETBko "Bi eta bat" umorezko saioan ikusteko aukera izan genuen.



ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI

Jon Basterra Barrutia, otsailaren 24ean.
Ander Moreno Etxebarria, 24ean.
Asier Etxagibel Larrañaga, 26an.
Oscar Lagullón Agreda, 27an.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Agustin Leonardo Uribarren del Val & Ma Asun Uribe Altuna. Otsailaren 28an, zibilez.
Estepan Plazaola Oladui & Miren Amaia Madinabeitia Garaikoetxea. 29an, Ilizaz.

Txandaka


TXOMIN ITURBE, EUSKO GUDARIA

Nahiz eta atzo izan zela iruditu, bost dira jadanik Argelian zoritxarreko istripu batean Txomin hil zenetik pasatu diren urteak. Berak, bere lurra, bere herria sakonki maite zuen gizona izan arren bere sorlekutik urruti galdu zuen bizia. Behartutako herbestean batetik bestera ibili ondoren, Argelia izan zen bere azken babes lurra. "Ni euskal txoria naiz, eta txori honek Euskal Herriko oihanak eta mendiak maite ditu" esaten zuen.

Bere herria hainbeste maitatzen zuenez, bere kideak bezala, bere herriarentzat pakea eta askatasuna lortzeko, bizitzan heriotzeraino borrokatzea merezi zuela ohartu zen.

Eskuzabaltasuna, konpromezua eta apaltasuna ziren militante abertzale honengan nabarmentzen ziren dohaiak. Hala ere, Txomin ez zen beste edozein militante baino hobea eta ez zuen pakea gainerako kideek baino gehiago maitatu.

Txomin hain zuzen ere, beste batzurekin batera, Euskal Herria eta Espainiar Estatuaren elkarren arteko gatazka luze eta samintsua gainditzeko, negoziazio mahai baten inguruan egin zen benetako lehen ahaleginean parte hartu zuena izan zen. Baina Txomin ez zen bere kideetariko inor baino



Kepa Ormaetxea (*)

negoziazio-zaleagoa.

Eremu politiko batzutatik eta modu interesatuan, bere historian zehar ezberdintasunak markatu nahi izan dira Euskadi ta Askatasunaren militanteen artean. Urrutirago joan gabe Baskongadetako Lehendakariak azken egunotan Mexiko aldera eginiko bidaiari honako


hau aipatu zuen: "Txomin Iturbek burua altxatuko balu, sustoz hilko litzateke gaur egun ETA nortzuk zuzentzen duten ikusita".

Ardanza jaunak sekulan ere ez du ulertuko, gaur, atzo bezala eta atzo beti bezala, horren truke ezer itxaron gabe pakea, justizia eta askatasunaren aldeko borrokan bere bizitza emateko prest dauden gizon-emakumeak izatea.

Bere herriaren independentziari eta askatasunari uko egiten dion gizona, behin ere ez da herri hori maite dutenean alboan egongo eta are gutxiago bere ordezkaria izango. Zein gutxietsia dagoen gaur egun beste batzuk duintasunez bizi izan zutena. Ez al du Joxe Antoni Agirrek burua altxatuko!

Atzo izan zela dirudi. Etsaiaren bakeak lortu ez zutena... istripu mardikatua!

(*) **HERRI BATASUNAKO KIDEA.**



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizenziatua. Arrasate



Senideek aurkeztutako mozioa eztabaidatuko da gaurko plenoan.

Bi arrasatear gose greban

Pedro Guridi eta J. M. Zabarte grebalarien artean

Kanariar irlatan dagoen Salto del Negroko espetxeko euskal presoak gose greban daude otsailaren 3aren geroztik, euren artean Jesus Mari Zabarte eta Pedro Guridi arrasatearrak. Hori dela eta, *Senideak* elkarteak aurkeztutako mozioa eztabaidatuko da gaurko plenoan.

Presoen senideek diotenaren arabera, aipatutako espetxeko euskal presoak, Juan Manuel Velasco gartzelako zerbitzu buruak bi preso jipoitu ondoren jarri ziren gose-greban, bata isolamenduko moduloan eta bestea zeldan leihoko barroteei lotu eta gero. Plenoan eztabaidatuko den mozioak dioenez, gose grebaren helburua presoen eskubideen zapalketa eta gartzela barruko sistema errepresiboa salatu eta bizi-baldintzen normalizazioa eskatzea da: preso guztiak modulo batean biltzea, patio orduak gehitzea, kirola egiteko aukera izatea,

vis a vis-etarako eta lagunaren bisitak jasotzeko aukera izatea, abokatuekiko harremana errespetatzea....

Senideen mozioak bost eskaera egiten dizkio Udalari: 1) Francisco Sanz Garciak, gartzelako zuzendariak, euskal presoei egindako eraso salatzea. 2) Gose-greban dauden presoen eskubideak errespetatzeko eskatzea. 3) Presoak Euskal Herrira ekartzea onartzea. 4) Udal mailan batzorde bat sortu, gartzelara joan eta hango arduradunei hartutako akordio berri emateko. 5) Mozioaren onarpena, espetxeko zuzendariari, gartzela-erakundeetako zuzendaritza nagusiari, justizia ministaretzari eta komunikabideei igortzea.

Senideek jakin arazi dutenez, "Salto del Negro"n gose-greban dauden euskal presoak, eskatzen dutena ematen ez bazaie, bukaeraraino segitzeko asmoa omen dute.

Usteak uste

Kanariar irlak, paradisia askorentzat, ezkonberrien bidaia topikoena, klima eta giro tropikala... eta euskal presoentzat "Salto del Negro"ko espetxea. Hilabete daramate gose-greban, tartean Zabarte eta Guridi arrasatearrak. Ez gustoz, noizbait zinikoren batek esan izan duen bezala; bizitzeko baldintza duinak eskatzearen bakarrik, espetxe horretan jipoiak eta tratu txarrak eguneroko gauza dira eta.

Egin-eko irakurle eta Egin Irratiko entzuleez gain, oso jende gutxi izaten ari da gose-greba horren berri; gainontzeko komunikabideek, ez entzunarena egin dute. Madrileko eta hemengo komunikabideak espetxeetako errepresio-sistemaren aldeko jokoan dabilta, paktoarekiko konplizitatea giza-eskubideen defentsaren aurretik jarrita. Hilabete honetan, komunikabideetan Ardanzak Mejikon egindako diskurtso eta afariak, ETaren ez dakit zenbatgarren eszisia, Odon Elorzaren haratuzteetako mozorroa... eta beste hainbat lelokeria irakurri eta entzun ahal izan dira. Une berean, euskaldun preso eta urrutiratu batzuk hilabete jan barik, eta bertako komunikabideetan lerro bakar bat ere ez.

"Horrela bizi izatea baino hobe da hiltzea" esan omen dute presoek, gartzela-zigorra betetzeaz gain, egunero zigortzen dituztela adieraziz. Komunikabideek ere, hortan daude? gartzela-zigorra nahiko ez delakoa?

BEÑARDO KORTABARRIA

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24
ARRASATE

Tfnoa: 79 70 39

□ Aurrekontuak 24ean

Joan den asteleheneko Gobernu Batzordean, aurtengo aurrekontuei buruzko plenoa hilaren 24ean egitea erabaki zen. Horretaz aparte, Gobernu Batzordeak, Uherkaperi eusteko egin behar diren lanen azterketa Manuel Romana, Geoteknikako katedratikoari enkargatzea erabaki zuen. Beste erabaki batzuren artean, azkenik, Gazteluondoko frontoi zaharraren aurreko patioa aparkaleku bihurtzea ere onartu zen.

□ Eroskik 2.500 milioi irabazi


Joan den urtean Eroski taldeak %35ean gehitu zituen bere irabaziak eta guztira 2.508 milioi PTA atera zituen. Dena dela, aurtengo gauzak ez doaz iaz bezain ondo eta, esaterako, Huelvako Riotinton orain denbora gutxi zabaldu zuen zentru bat jtxi behar izan du; antza denez, oso gutxi saltzen zelako.

□ Auzo-Lagun elkartu

Auzo-Lagun taldea Frantziako Aca-cias eta Italiako Camst taldeekin elkar-tu da, "Cheque Gourmet" enpresan sartu ahal izateko. Aipatutako enpresak janari-txartelak saltzen ditu.

□ Hitzarmeneko teknikarrik ez

Euskararen hitzarmeneko dinami-zatzaile izateko aurkeztuak hizkuntz eskakizunak betetzera iritsi ez zirenez, oraingoz ez da lanpostu hori bete eta deialdi berria egin edo aukeztuetako bat hartu erabakiar dago oraindik.



AEDren aldaketetako bat lokalaren aldakuntza zalantzarik gabe

AEDren Batzar Nagusia

Martxoaren 13an, Monterronen arratsaldeko 7etan

Datorren ostiralean, hilak 13, AED elkartearen 1992ko batzar nagusia burutuko da. Batzarra Monterronen izango da eta arratsaldeko 7etan emango zaio hasiera.

Lehenik, 1991. urteko AEDren diru-kontuen azalpena egiteko asmoa dago; gero, iharduera eta lan-sail desberdinen nobedade eta asmoen berri emango da eta ondoren, Zuzendaritza Batzordeko zenbait kideren hautaketari ekingo zaio. Galdera eta erantzunei txanda eman aurretik, 1991. urteari

buruzko AEDren balorazio orokorra eta aurrera begira jarraitu beharreko arda-tzak azalduko dira.

Batzar Nagusia garrantzitsua denez, AEDko bazkide guztiei ekitaldira agertzeko deia zabaldu nahi zaie. Bileraren ondoren, afaria izango da Kataide jatetxean. Afarira joan nahi dutenek AEDn eman dezakete izena, jakinda afariaren prezioa 2000 PTAkoa izango dela, nahiz eta gazte eta langabeei prezio berezia egin. Afarian, trikitilari, bertsolari etab. izango dira.

M
E
C
A
R
A
P
I
D

IKUSENTZUTE BIDEZKO MEKANOGRAFIA

- 28 ordutan, egunean klase bat, 200 pultsazio minutuko
- Hatzamar guztiekin idaztea
- Tekletara begiratu gabe
- Baita abiadura ikastaroak ere, minutuko 350 pultsazio arte.

BAITA MEKANOGRAFIA
ORDENADORE BIDEZ ERE
TAKIGRAFIA

meca-rapid

Otalora, 3-1. C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

zorizi

GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otalora 2/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

BURGALES
JATETXEA

Jaki goxoak eta
giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETAKO



Otsailean ez da euritakoan behar handirik izan

Otsailean euria lau egunetan

Temperaturarik altuena 19'4º eta bazuena -3'2º

Otsaila hilabete lehor eta hotza izan zen, euria bakarrik lau egunetan egin zuen eta, guztira 17'7 litro metro karratuko hile osoan. Hileko egunik eurtsuena 12a izan zen, 12'31 litroekin eta ondoren 16a 3'4 litroekin, 16an 3'4 litro eta 18an 0'7 litro.

Hotz-beroei dagokienez, gora behera handiko hilabetea izan zela esan daiteke, baina orokorrean hotza, hamahiru egunetan termometroak zero azpiko tenperaturak markatzera iritsi ziren eta. Hilabete osoko tenperaturarik hotzena

23an izan genuen, zero azpitik 3'2 gradutarainokoa hain zuzen. Hala ere, egunik hotzena 18a izan zen, 7 gradu tenperaturik altuena eta 0 bazuena; 21a ere, ez zen makala izan, 8'5 gradu altuena eta -1'7 bazuena. Termometroei goitik begiratu gero, egunik beroena 15a izan zela esan daiteke, tenperatura 19'4 gradutaraino igo eta 4tik ez bait zen jaitsi. 23an eta 28an ere, termometroak 18 graduetan ibili ziren. Batz bestea, hile osoko tenperatura 7'5 gradutakoa izan zen.

Etxez-etxeko laguntzak

Gaur arratsaldeko 7etan Udaletxean burutuko den hileroko plenoan etxeko laguntzari buruzko araua onartuko da. Honetaz gain, Arrasateko lorazantza zerbitzuak arautuko dituen baldintzak ere zehaztuko dira.

Tasen ordainketa

Martxoaren 10ean bukatuko da epea 1991. eko laugarren hiruhilabeteko ur, zabor eta estolderia tasa ordaintzeko. Aipatutako epea pasa ondoren, ordaindu gabe dauden agiriak, %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

Era berean aipagarria da langabetu eta jubilatutako datorren martxoaren 13a arte udal-tasak ordaintzeko subentzioak eskatu ahal izango dituztela.

Dirulaguntzen eskaera

Udaletxeko Kultur eta Kiroletako batzordeak kultur elkarte guztiei jakin arazi nahi die 1992rako dirulaguntzak eskatzeko martxoaren 31 arte izango dutela denbora. Dirulaguntza eskariarekin batera, talde bakoitzak honako dokumentazioa ere aurkeztu beharko du: 1991ko gastu eta sarreraren balantzea, 1992rako aurreikusitako ihardueren egitaraua eta 1992rako aurrekontua.

Egonaldiak euskal familietan

Euskara ikasteko bere etxean norbait hartu nahi duenak, martxoaren 27a aurretik Jaurilaritzako Kultura Departamenduan egin beharko du eskaria.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

ARRASATE



Larunbat gaueko Play-Back jaialdi famatuan denetarik ikus eta entzuteko aukera izan zen. Behar bada, sonatuenetarikoa **Arresti - Demis Roussos**-en ekitaldia izan zen. Aspaldiko kantaria, baina oraindik askorentzat gustokoa.



Play-Back jaialdia umorean oinarritzen da eta saio musikal ez gain, txiste kontalariak agertu ziren. Batek **andaluzarena** egiten zuen eta besteak **euskaldunarena**, txistek baino, txistek kontatzeko era politagoa.



Urtero egiten duten moduan, asteartean goizean goiz mozorrotuta agertu ziren **Gema eta Mari Pili**, Portaloiko saltzaileak. Arabiar eta txinarrak beti bezain fin igaro zuten eguna, jai giroan baina era berean lanean.



Askotan ez da erraza ilusio handiagoa helduak ala haurrak nor izaten duen jakitea. Argazkikoak, bere jantziari ez zion jaramon gehiegirik egiten eta ardura handiagoa zuen **txupetea zaindu** eta Seberoko bankuetan jolasteko.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



DAMIKAR'T


Estetika eta Ileapaintzaile
Eskola

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.

Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

Izen
PROPIOAK



▲
Felipe Unda, Estatu mailan kardioplastia operazioa egin zaion lehena. Hilabete dela operatu zuten Donostiko Poliklinikan eta joan zen astean etxeratu zen. Ongietorria emateko argazki hau atera genion astezken arratsaldean. Ostegun goizean hil egin zen. Goian bego.



◀ Joan den asteartean Biteri Egoitzako Euskera Batzordearen eskutik, Eskola Politeknikoko Areto Nagusian, **Xabier eta Peter** izan ziren. Helburu nagusia, beraien bizitza artistikoan oinarrituz, humoreari buruz hitz egitea zen eta euren lana definitzea. Bisitan, adibideak ere aurkeztu zituzten.

● **Juan Jose Garmendia "Janjo"**, 28 urteko arrasatearra da Egunkaria-ren banatzailea. Arrasaten, Lanbide Heziketako ikasketak egin ditu. Momentuz bera da banatzaile bakarra eta tabernetan, etxez-etxe eta kalean ere banatzen ditu harpidedun egin direnen aleak.

● *Arrasate Kooperatiba Korporazioko* zazpi karguak honakoak dira: Kongresuko lehendakari **Jesus Mari Herrasti**, Konseilu Orokorreko lehendakari **Javier Monjelos**, Idazkari Orokor **Javier Erdozia**, Idazkari Tekniko **Jose Ignacio Garate**, Gestio Sozialeko zuzendari **Jesus Mari Goienetxe**, Garapen Teknologiko eta Kalitate-zuzendari **Manuel Quevedo** eta Gestio Finantziarioan **Miguel Angel Lazpiur**.

● **Josu Errasti, Iñaki Korta eta Lordi Zua-zubizkar** dira Debako pelota txapelketan finalista atera diren hiru arrasatearrak.



ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55




Otsailaren 28an Aretxabaletako industraldean **Diara diseinu enpresak** lokal berria inauguratu zen. Azken solairuan kokatuta, lehiotik Aretxabaleta osoa begi bistan, eta 15-20 pertsoneko lantaldea. Punta puntako enpresa honek, bulego modernoa prestatu du eta aldi honetan, diseinu munduan ari direnei eta ezagunei erakusteko aprobetxatu zuen.



Karnabalak aprobetxatuz, omenaldia eskaini zioten Musakolako jubilatuen etxean **Joxe Zubizarretari**. Azken urteetan Joxe Zubizarreta Musakolako egoitzako idazkaria izan da eta horregatik omenaldia. Omenaldiaz gain, Joxek opari txiki bat jaso zuen. Karnabalak eta omenaldiaren aitzakiaz, berrogeitamarren bat lagun bildu eta bazkari goxo bat dastatzeko aukera izan zuten.



Biona tabernako **Partxis Txapelketaren finala** burutu zen joan den astean. Mahaiaren bueltan, **Juan Luis Aranburuzabala** eta **Juan Luis Azkaratek** osatutako bikotea alde batetik, eta **Mikel Uribesalgo** eta **Eugenio Uribarrenek** osatutakoa bestetik. Partida gogor baten ondoren, Juan Luis biak txapeldun. Txapeldunek 40.000 PTA jaso zituzteñ eta beste bikoteak 20.000. Zorionak bie!



Otsailaren 28an Iraunkorrek antolatutako **Produkzio-Zuzendaritzako masterra** eta **Automatizazio Industrialeko Sistemetako Masterra** programen amaierarako, diploma banaketa egin zen Hasieran Eli Galdos eta Paulino Luesma ziren etortzeko, baina Diputatu Nagusiak ordezkoa bidali zuen.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



Lehia garbian

Borroka izugarriak ikusten dira Zaldibarren jokatzen diren partiduetan. Izan ere, baloia ahalik eta denbora gehienez kontrolatzeak eragin handia izaten du partiduen martxan. Lehia garbia denean, argazkikoa esaterako, ez da arazorik izaten; joko zikina azaleratzen denean, ordea, beste kontu bat izaten da.



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Anboto

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 20 48

- Errentamenduak
- Salmentak
- Balorazioak, etab.

fasprint

Inprimaketa-denda

Arrasate Pasealekua, 2
ARRASATE
Tfnoa: 77 06 11
Faxa: 77 09 86



A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	2	2	0	0	13	3	4
Los Heredia	2	2	0	0	11	3	4
Argi Ibili	2	2	0	0	14	4	4
Kajoi	2	1	1	0	5	4	3
Fasprint	2	0	1	1	3	11	1
Notxingan Flo.	2	0	0	2	4	7	0
La Banda	2	0	0	2	3	10	0
Hirei	2	0	0	2	4	15	0
Totala	16	7	2	7	57	57	16

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida	2	2	0	0	16	2	4
Akaitegi Express	2	1	1	0	7	4	3
Gnu Seg. Bilbao	2	1	1	0	5	3	3
Danok Lagun	2	1	0	1	5	7	2
Arrasate Kirolak	2	1	0	1	6	7	2
Adobe	2	1	0	1	7	15	2
AEK	2	0	0	2	3	6	0
Los Motz	2	0	0	2	6	11	0
Totala	16	7	2	7	55	55	16

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Lorategi Potroak	2	2	0	0	12	2	4
G. P. Noski	2	2	0	0	8	4	4
Pepelus	2	1	0	1	6	5	2
V. C. Dalgas	2	0	2	0	6	6	2
Jota Akabau	2	1	0	1	5	7	2
Artzankos Udala	2	0	1	1	4	8	1
Diego Antonio	2	0	1	1	4	10	1
Zulu s	2	0	0	2	5	8	0
Totala	16	6	4	6	50	50	16

Bi partidu jokatu dira bakarrik, baina dagoeneko, txapelketa honetan batzuen zein besteen papera zein izango den jakiteko oso adierazgarriak izan daitezke. Orain artean gertatutakoaren arabera, gainontzeko guztiek baino sendoagoak dirudite sei taldek: Fosforos, Los Heredia, Argi Ibili, Adelaida, Lorategi Potroak eta G. P. Noski. Behar bada ausartegia izango zen esandakoa esatea, baina aipatutako taldeak lehen fasean ere ondoen ibili zirenak direnez, hainbeste esateko konfidantza ematen duten. Euren artean, sendoena zein den? denborak esango du.



Danok Lagun: Eusko, Fidel, Andoni, Juan Jose, Jose Ramon, Jon, Jose Antonio, Ramon eta Antonio.



AEK: Menoti, Carlos, Iñaki, Juan, Xabi, Iraultza, Txipi, Bodegas, Andoni, Txabi eta Oskar.

JMA



Behetik eramándako baloiek, kontrol hobea ziurtatzeaz gain, arriskutsuagoak izaten dira. Hala ere, hankak ezezik burua ere ondo erabiltzea garrantzitsua da. Buruaren joku horretan salto handiena egiten duenak izaten ditu abantaila guztiak. Beraz, buruz ondo jotzeak fisikoki ondo egotea eskatzen du.

Lorategi
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

EMAITZAK

A taldea

La Banda 1 Argi Ibili 6
Los Heredia 7 Hirei 1
Bar Kajoi 2 Notxingan 1
Fasprint 0 Fosforos 8

C taldea

Artzankos 1 Lorategi Potroak 5
V. C. Daglas 3 Diego Antonio 3
G P Noski 4 Zulu's 2
Pepelu's 4 Jo ta akabau! 1

B taldea


Akaitegi Express 2. GNU Seg. Bilbao 2
Danok Lagun 3 AEK 2
Los Motz 2 Arrasate Kirolak 5
Adobe 1 Adelaida 11



M E S O N
M A N O L O

**Eguneroko
janariak eta
enpresa bazkariak**

Bañez Doktorea z/g




ARRASATE
KIROLAK

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30

IOSEBA KONTENEDOREAK



Urriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

RUMBA
t a b e r n a

Iturriotz Kalea
ARRASATE



Txutak

Bi martxa

Abiadura desberdineko trenen itxura hartzen ari da aurtengo Zaldibarko Futbito Txapelketa, batzuk Urolako trenean eta besteak Abiadura Handikoan jarrita baleude bezala. Behar bada, ondorio azkarregiak ateratzea izango da, baina Fosforos, Los Heredia, Argi Ibili, Adelaida, Lorategi Potroak eta G.P. Noski taldeek abiadura handiko trenean joateko itxura daukate; aldiz, Noxingan Florest, La Banda, Hirei, AEK, Los Motz eta Zulu's-ek Urolakoan; gainontzekoak, Kajoi, Fasprint, Akaitegi Express, Gnu. Seg. Bilbao, Danok Lagun, Arrasate Kirolak, Adobe, Pepelus, V. C. Daglas,

Jo ta akabau, Artzankos eta Diego Antonio bata harrapatzeko esperantzan edo bestera igotzeko arriskuan.

Gauzak horrela eta datorren asteko partiduei begira, Abiadura Handiko Trenean doazen artean, primeran edo segundun zeintzuk joango diren argitzeko aukera izan daiteke. Zentzu horretan, A multzoan Los Heredia - Argi Ibili eta Bar Kajoi - Fosforos partiduak esanguratsuak izan daitezke. Horretaz aparte, Danok Lagun - Gnu. Seg. Bilbao eta V. C. Daglas - Lorategi Potroak izango dira seguruenik partidurik interesgarrienak. Gainontzekoetan ez dirudi sorpresarik izan daitekeenik eta bakoitzak berean jarraitu beharko luke, hau da, batzuk martxa azkarrean eta besteak geldoan.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEAN

A taldea


La Banda Hirei
 Los Heredia Argi Ibili
 Bar Kajoi Fosforos
 Fasprint Notxingan Flores

B taldea

Akaitegi Express AEK
 Danok Lagun Gnu. Seg. Bilbao
 Los Motz Adelaida
 Adobe Arrasate Kirolak

C taldea

Artzankos Diego Antonio
 V. C. Daglas Lorategi Potroak
 G P Noski Jo ta akabau!
 Pepelu's Zulus



EGIDO

Automobilarentzako ordezko piezak

Legarre Pabilioia.
 ARRASATE Tfnoa: 79 62 11




Foruen

Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16
 ARRASATE



BETTI SEGURU



MIKEL LASA

Aseguru artekaria


Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
 Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43

ITURRIOTZ

TABERNA

GIRORIK
 JATORRENA !!
 Tfnoa: 79 16 04





Emakumearen borrokak

Igandea, hilak 8, Emakumeen Eguna ospatzen dela eta, lau emakume bildu ditugu mahaiaren inguruan. Bakoitzak talde bat ordezkatzeko du eta Arrasateko emakumearen egoerari buruz mintzatu dira.

Zein da zuen ustez gaur egungo emakumearen egoera batez ere Arrasate mailan?

Asun Ibabe. Guretzat Arrasate eta beste herritako emakumeen egoera berbera da. Horren barruan puntu batzuk bereiztuko nituzke eta lehena Udalak arlo honetan dituen zerbitzu eskasak dira. Askotan eskatu ditugu zerbitzu konkretu batzuk, esate baterako bortxaturiko emakume eta tratu txarrak jasaten dituztenentzako egoitzak. Hala ere, izan dugun erantzun bakarra ezetza izan

da. Bestalde, legegintzan izan diren aldakuntzek gauza askotan eragin dute baina ez emakumeen onerako. Abortoan ez da ezer aldatu, baldintza batzuk jarri dira baina errealitatean ez dakigu noraino heltzen diren. Gero etxeko neskameak aipatuko nituzke, lan txarrenak jasaten dituztelako, gaizki ordainduta eta segurik gabe dardelako. Egin dugun inkesta baten bidez garbi gelditzen da euren egoera txarra eta lortu nahi duguna biltzeko joera bultzatzea da, beraien eskubideak exijitzeko. Eta

azkenik emakumeok behar dugun autoestima hori errespetatzea eskatuko nuke. Horretarako beste zentru batzuk izan beharko genituzke, autodefentsa edo masajeei zuzenduak adibidez.

Sagrario Lopez. Bai, ni ere ados nago horrekin baina *Egizan* taldetik desberdintasun bat ikusten dut, guk arazo hori emakumeak genero bezala hartuz aztertzen dugula hain zuzen. Bestela ikusten da gauza asko dardela egiteko; gehiena, esango nuke nik. Eta hori lortzeko inportanteena denok bil-

tzea da eta harremanak mantentzea. Udalan ez digute ezer oparituko, horregatik presionatu egin behar dugu. Guk sistema kapitalistari plusbaldia bat ematen diogu dohainik, etxean eskaintzen ditugun zerbitzuak dohainik dira eta. Honekin ez dut esan nahi etxeko andrea beste lanbide bat bezala kontsideratu behar dugunik, beste pertsona sozial bat bezala baizik, besteekin harremanak izan behar dituen. Orduan lanpostu bat eskatzen dugu denontzat, etxeko lanetan denok parte har dezagun.



Emakumearen borrokaren beharra azpimarratu zuten lau emakumeek.

Itziar Ezpeleta. Azken puntu hori idealki oso polita izan daiteke, baina errealitatean ikusi behar dena da ez dagoela lanposturik eta horren kontra ezin dezakegu gauza asko egin, hor dago eragozpen handiena.

Asun Ibabe. Argi dagoena da gizarte hau gizonak eta gizonentzat egina dagoela.

Itziar Ezpeleta. Nahiz eta lanbide horren positibitatea egon, inportanteena da gaurko emakumea ez dagoela

prestatuta halako lanpostu batean lan egiteko, beti etxeko lanak egiteko ohitura duen emakume batek ezin du eta bapatean beste lanpostu batean sartu.

Sagra Lopez. Arazo horren sakonean ikasketetan egiten den banaketa dago. Gaur egun oraindik ikasketak aukeratzeko orduan badago bereizketa bat. Neskak psikologia, enfermeria, letrazko karrerak eta abarretara jotzen dute; mutilak ordea

enpresariales, informatika, zientzi arlotako karrerak.

Asun Ibabe. Txikitatik erakusten zaie gizarte mailan, banaketa hori oraindik badagoela bai etxean, eskolan edo kalean bertan.

Marilu Ajuria. Nik uste dut gaurko gazteria ohartzen dela gauza horietaz eta nahiko argi izaten duela zer nahi duen.

Katekisten aldetik zer motatako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Itziar Ezpeleta. Nik uste dut Arrasate eta beste edozein tokitako emakumea desberdina dela, bakoitzak bere ezaugarriak izango dituelako, oso egoera desberdinean ikusten dut adibidez base-rrian edo kalean bizi dena, hiri handi edo herri txiki baten bizi dena. Herrietan, Arrasaten bezala, zerbitzu batzuk dituzu, EKIN edo Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak betetzen dituztenak. Bestalde eskaintzen ditugun zerbitzuen artean emakumeei zuzenduak honako hauek daude: parrokiak 30 andra daude arazoak dituzten emakumeei laguntzen dietenak, 15 tratu txarrei buruz lan egiteko. Guzti hauei Karitasek diru laguntza eskaintzen die, egoitza bat dohain eta adibidez dibortzioa tramitatzen dutenei, behar dituzten laguntzak. Beste talde batek bakarrik bizi diren emakumeak bisitatzen ditu.

Marilu Ajuria. Guk eskaintzen ditugun zerbitzuak guztiz desberdinak dira. Euskeraren inguruan bildu



Asun Ibabe
Emakumeen
Asanbladakoa

"Gizartea gizonak eta gizonentzat egina dago"



Sagra Lopez
Egizan
taldekoa

"Oraindik gauza gehienak egiteko daude"



Itziar Ezpeleta
Katekista

"Komodidadeagatik ez da emakumea ekintza berrietan sartzen"



Marilu Ajuria
Ekin taldekoa

"Betiko zirkulo horretatik irtetzea asko kostatzen zaio"

ginen. Euskera Arrasate mailan nahiko baztertuta zegoela ikusi genuen eta euskera bultzatzeko zerbitzu batzuk hasi ginen eskaintzen: sukaldaritza, eskulanak eta abar. Baina hauetaz gain nahi izan dugu beste ikastaro batzuk ere eskaini eta ikusi duguna da emakumea zirkulu batean dagoela eta ez duela hortik irten nahi. Psikologia, Euskal Herriko historiari buruzkoak ez dute halako arrakastarik izaten. Gure kasua nahiko mugatua da euskeraz delako baina beldur hori ikusten dut.

Asun Ibabe. Horren arrazoia nik norberak duen heziketan ikusten dut. Adibidez, sukaldaritzan emakumeak badaki zer dagoen, ondo ezagutzen du baina historian adibidez ez du izango ideiarik eta erabateko beldurra izango du horietara joateko, ez daki eta horretaz ezer.

Itziar Ezpeleta. Nik uste dut komodidadea dela arrazoia, emakumeak baditu beste ohitura batzuk eta ez du nahi bizi modua konplikatzerik, ez du gauza berrietan sartzerik nahi.

Sagra Lopez. Emakumea objektu edo gauza bezala ohi-tuta badago etxekolanetan, labadora jartzen, plantxan edo beste edozer lanetan, ikusten da gizartera jeitsi nahi duenean "hilda" dagoela.

Zein da feminismoak izan duen papera historian zehar eta ze paper du gaur egun?



Neskameen gaia sakonki ikutu zuten mahainguruan.

Asun Ibabe. Izan duen papera inportantea izan da baina ez praktikoki lortu diren gauzengatik. Ez da urte asko *Emakunde* sortu dela eta egin duen hitzarmenean oso gauza politak agertzen dira, aurrerapen asko ikusten da teoriaraino baina ez errealitatean, azken finean paperean gelditu dira. Eta esan dut lehen ere, legegintzan izan diren aldatetak ez dakigula zertan gelditzen diren.

Sagra Lopez. Niretzat inportanteena da oraindik

gauza gehienak egiteko dardela. Horretarako borrokan jarraitu behar dugu besteei begiratu gabe, feminismoarekin edo feminismoarekin gabe. Eta txikitatik umeei berdintasun hori erakusten bazaie askoz hobeto, saketik, sustraietatik hasi be-

harko garelako.


Marilyn Ajuria. Oraindik etxean gelditzen diren emakume horietara heltzea gelditzen zaigu, bide egokiena bilatu beharko dugu zirkulo horretatik irtetzeko eta beste aktibitate batzuk antolatzeko.

Aldaketa hauek lortzeko, zer da emakumeak egingo beharko duena, edo berez aldatuko dira gauzak?

Asun Ibabe. Ez, gauzak ez dira berez aldatuko, hori argi dago.

Itziar Ezpeleta. Bide egokiena biltzea eta borrokatzea da dudarik gabe.

Sagra Lopez. Gauzak ez dira berez aldatuko, orain arte borrokan ibili gara eta hala eta guztiz ere ez dira asko aldatu. Jakina borroka behar dela, zerbait lortu nahi bada.



**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94



Dorletako Ama 92-93



Infantilak

Zuzendaria: Luis Sebastian.

Angel Maillo, Aritz Maillo, Arkaitz Mesa, Egoitz Garai, Mikel Sebastian, Iban Idigoras, Oier Garro, Urko Anduaga, Ekaitz Diez, Daniel Ruiz, Jose Sedano, Mikel Roldan, Luis Gil, Unai Ruiz, Jon Ander Ramos eta Zuhaitz Herrero.



Kadeteak

Zuzendariak: Fidel Balgañon eta Josu Estevez.

Angel Delgado, Roberto Fraile, Asier Antia, Anatz Jauregiarzo, Gorka Balgañon, Iurgi Garai, Iraultza Alberdi, Sergio Frutos, Arkaitz Gomez, Jose M. Cuadrado, Jon Gonzalez, Iban Sastre eta Aritz Uriarte.



Lehen urteko jubenilak

Zuzendariak: Pedro Urain eta Alberto Altube.

Amaia Garcia, Arantza Fernandez, Haritz Altube, Ruben Cabero, Ander Agirreurreta, Jose M. Elizburu, Josu Gonzalez, Iñaki Rubio, Zigor Urain, Felix Zugasti, Iker Zugasti, Antonio Prol, Francisco Galiot eta Jose M. Lozano.



Bigarren urteko jubenilak

Zuzendaria: Manuel Reifs.

Aitor Arza, J.R. Aiastui, Mikel Azkarate, Zigor Arabaolaza, J. L. Carballo, Daniel Diaz, Asier Ezkibel, Azibar Elorza, I. Galdos, Sergio Gallardo, Andoni Garcia, Joseba Garitano, Aitor Garro, Ritxar Gomez, Igor Guenetxea, Aitor Llodio, Gorka Marzan, Iban Navarro, Jon Ramila, Manuel Reifs, Alberto Roldan, Angel Sanchez, Unai Urbina eta Juanjo Balgañon.



Hurrengo partidua

Asko kostata, baina Mondrak joan den astean jokoan jarritako bi puntuak poltsikoratu zituen azkenean. Berriz ere, arrasatearrak partidoari eman zioten hasieratxarrazan zen, hasi bezain pronto gol bat sartu zioten eta. Gero, izerdi eta borroka handiz partidua berdindu eta markagailuan aurretik jartzea lortu zuten. Azken finean urrezko bi puntu, oraindik esperantzei eus-teko balio dutenak.



Datorren astean, Tolosara. Lesionatuta dagoen jendea errekueratzea komeni zaio Jesus Izagirreri, ahalik eta talderik onena eraman ahal izateko. Izan ere, datorren asteko partiduak garrantzi berezia dauka: mondragoetarrek irabazten badute, negatiboak alde batera lagatzeaz gain, Tolosarren aurrean jarriko bait dira sailkapenean.

Beraz, helburu bakarra garaipena da. Ez da erraza izango, tolosarrek aurreko denboraldietan ibili diren bezain ondo ez ibilita ere, talde gogorra osatzen bait dute. Ondo jokatzearaz gain, zortea ere beharko dute Izagirreren mutilek, ea tolosarrak igandean oraindik haratuzteetako bixamonaz dauden!

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

ARANTZA eta AMAIA

Emakumezko txirrindularien bakardadea

Hamasei urte besterik ez daukate bi txirrindulari hauek, Dorletako Txirrindulari Eskolan dabilzan emakumezko bakarrak, hain zuzen ere. Amaia orain sei urte hasi zen bizikletan ibiltzen; Arantza, berriz, orain lau. Bi atxabaltar hauek, betidanik kirola gustoko izan dute, denetarik probatu eta txirrindularitza aukeratu zuten. "Asko gustatu zitzaidan probatu nuen lehen alditik, -dio Arantzak- aitak ere, zaletasuna dauka eta behar bada hortik etorriko zitzaidan". Gustatu lehen aldetik gustatu omen zitzaien, baina orain arte ez dutela oso seriotan hartzen aitortzen dute. "Biok ikasten ari gara eta entrenamenduak ahal dugunean egiten ditugu, astia hartutakoan. Aurten, seguruen, ordu gehiago eskainiko dizkiogu bizikletari, zerbait egiteko gogoia badugu eta".

Entrenatzeko denbora ezak eragotzi ditu, neurri handi batean, orain arteko emaitza onak. Horretaz gain, emakumezkoen lasterketetan kategoriaz guztietako txirrindulariak izateak ez die gehiegi lagundu. Emakumezkoen txirrindularitzak, gizonnezkoetan bezala, gero eta maila al-

PODIUMA



tuagoa duela Amaia eta Arantzak, eurek tropelarekin iristeko nahiko lan izaten badute ere. "Txirrindu gainean oso antzerakoak gara, jaisten eta lauan ondo moldatzen gara, baina igotzerakoan... batzuetan helmugara atze samarrean iristen gara".

Dorletako Txirrindulari Eskolan txirrinduan dabilzan emakumezko bakarrak izateak pena handia ematen die. "Uste dut -zioen Amaiak- neskek ez dutela bizikleta behar bezala probatu, bestela gehiago izango ginatke. Batzuk uste dute bizikletak gorputza deformatzen duela baina ez da egia; kirol gogorra da, baina polita ere bai".

Neska eta era berean txirrindulari izateak, denetarik ekarri die. "Pasatzerakoan denetarik entzun daiteke, bah! neskak! esaten duenetik aupa neskak! esaten duenetaraino. Jendearen animoak gustora hartzen dira, baina animo horiek neska izateagatik ematen ez badira, txalotzea merezi duen ahalegina egitearren badira".

◆ Irazola eta Urta finalera

Bigarren mailako profesionalen arteko pilota txapelketako finala jokatu dute datorren ostiralean, hilak 13, Urta eta Irazolak. Biak, erdifaletako konpromezuak aurrera erraztasunez atera zituzten, Berna eta Santi errioxarren aurkakoak hain zuzen ere. Elkar ondo ezagutzen duten bi pilotari hauek aurrez-aurre izango ditugu; batek zein besteak jantzi, txapela Arrasatera.

◆ Pilotariak Aretxabaleta jipoitu

Deba Arroa txapelketaren barruan Arrasate eta Aretxabaletako taldeen arteko hiru partidu jokatu ziren, hiruretan arrasatearrak irabazle, erraz gainera: infantiletan, 18-11; jubenetan 22-9; eta helduetan 22-10.

Datorren larunbatean, eguerdiko 12etatik aurrera, Euskal Ligaren barruan Arrasate eta Amezketaren arteko partidua jokatu da, Iturripen.

◆ Neskak ondo, mutilak gaizki

Gizonezkoen Centraljet Euskal Air ezinean dabil aurtengo txapelketako bigarren fasean, jokatu dute bi partiduetatik biak galdu ditu eta. Azkena, Deuston, La Salle taldearen aurka. Dena dela, arrasatearrak ondo jokatu zuten eta aurrera begira, baikortasunak agindu behar du; gehiago larunbatean, liderra bait dator.

Gizonak gaizki, baina emakumeak ondo, Gernikari 54-40 irabazi zioten eta. Emaitza on horri esker, sailkapen orokorrean arrasatearra Gipuzkoako lehen taldea da.

◆ Rugbykoen beste garaipen bat

Bera-Bera taldeari erraz irabazi zion Mondrak joan den larunbatean. Orain, Getxorekin jokatu behar du; irabaziz gero, kategoriari eutsiko dio. Dena dela, ez da erraza izango.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Aspirinaren etengabeko gaurkotasuna

Ehun urte baino gehiago daramatza bizirik, salmenta aldetik marka guztiak hautsi ditu mundu zabalean: aspirinaz ari gara, noski hain ezaguna dugunaz. Baina seguraski ez dugu jakingo 12 langile bakarrik zituen lantegi txiki batean asmatu zutela. Bayer zen lantegiaren izena, eta Frankfurt inguruan zegoen ehungintzako industria batentzat koloratzaileak egiten zituzten.

Eta orain, urteak igaro ondoren, gizakiak jasaten duen minbizi edo kantzer ugarien eta okerrenetako bati aurre egiteko konponbide izan daiteke agian.



Ingalaterran eta Estatu Batuetan egin diren azterketa epidemiologiko batzuek agerian jarri dute, edozein arrazoiengatik aspirina neurri txikian hartzen duten pertsonen koloneko tumoreak oso gutxi izaten dituztela.

Era berean, ikusi da kolo-

nean eragina duen Hestee-tako Poliposisak hobekuntza nabaria izaten duela esteroideak ez diren hanturaren aurkako edo antiinflamatorioak hartzen badira. Aspirina, Indometacina, Piroxican eta Sulindac antiinflamatorioak diren medikamendu edo botika horietakoak ditu-

gu, eta, dirudienez, koloneko tumoreen hantura edo inflamazioa eragozten dute.


Orain arte aipaturikoa gizakiengan ikusi bada ere, marraskariekin esperimentatua dago eta ondorio positiboekin, gainera.

Egunero hartutako dosi txikia, edo astean lau aldiz, nahikoa izaten da substantzia batzuen sorrera ebitatzeko, eta substantzia hauek beharrezkoak dira koloneko minbizi agertzeko.

Aspirina izango ote da minbizi honen prebentziorako oinarria? Oraingoz behintzat hala dirudi, eta honen inguruan ate bat zabalik geratzen da hain ugaria den minbiziaren prebentziorako.

Eukeni & Arantxa

Zure zapatila berriak LORAMENDIn.



San Andres auzoan...

LORAMENDI  KIROLAK

Drogaren inguruko azken atxilotuaren berriak belarrietan oihartzun urrun gisa genituen. Pascual G. G. izenak ezer gutxi esaten zigun eta irakurri eta entzundakoa idatzi genuen: astelehenean mila heroina dosirekin atxilotu zutela eta Ertzantzaren esanetan Deba garaiko trafikatzailerik handiena zela. Telefonoaren tirrinak ekarri zigun behar bada istorioaren bestekaldea dena: "Pascualen ama naiz eta egia kontatu nahi dut. Denak gezurretan ari dira".

— Igande eguerdi aldera semeak dirua eskatu zidan eta ez neukala esan nion, baina nahi bazuen nire itxulapikoa apurtzeko, oporretarako dirua gordetzen nuena. Halaxe egin zuen, eta ez dakit zenbat zegoen, berrehunik ez. Hamabost mila utzi zituen, eta ez Ertzantzak dioen moduan 30.000. Hurrengo goizean atea jo zuten behetik Pascualengatik galdetza eta norbaitek urduri bezala beragatik galdetzen zuela esan nion. Ertzainak etorri eta atxilotu egin zuten, etxea arakatu. Jiringilak, tonbolan neuk botatako laban bat eta urrea pisatzeko erabiltzen dudana pisu bat aurkitu zituzten, azken hori neure gauzen artean.

— **Eta heroinarik?**

— Heroina ere aurkitu zuten, ezin dut esan zenbat zegoen, nik ez dakit. Niri bi orduan ez zidaten etxean sartzen utzi. Hurrengo egunean egunkariak ekarri zuen mila dosi harrapatu zizkioleta, 1.400.000 ptako balioa zutenak. Non zueden horiek? Nire semeak 150.000 PTA baino gehiago ez zituen eraman hemendik. Pascuali bitxiak ere aurkitu zizkioleta

Petra Garcia

"Nire semea ez da trafikatzailerik, drogazalea baizik"



esaten zen, eta bitxiak nireak ziren, dirua bezala.

— **Orduan, trafikatzailerik zara?**

— Nire semea ez da trafikatzailerik, kontsumitzaile edo drogazalea baizik 14 urte zituenetik. Egunean bi gramu inguru kontsumitzen ditu. Bizi izateko geratzen zaionagatik hala jarraitu beharko duela esan didate medikuek. Berak badaki HIESa duela. Edozein egunetan ohean hilik aurkituko dudala esan didate, eta berak deitu arte ez naiz joaten, hilik aurkitzeko

beldurrez. Dirua neuk ematen nion, batzutan hogeit hamar... ahal nuena. Galde dezatela bankuetan zenbaterainoko zorrak ditudan hori dela eta. Batzuetan negar egiten zuen, monoa zuela eta gehiago ezinean zegoela eginez. Nire semearekin egin dutena injustizia izan da, eta hori Martuteneko kartzelatik ere esan didate.

— **Jendea etxera etortzen zela ere esan dute, ezta?**

— Egunean hamar lagunekin gora etortzen zela esan

dute. Behean sei bat mutil bizi dira. Gero, nik garbitasuneko enpresa bat daukat eta karteradun gizonak etortzen dira produktuak saltzera, eta Pascuali droga ekartzera etortzen zirela pentsatuko zuten. Hori gezur hutsa da. Egia da batzutan lagunak ate joka etortzen zaizkiola, elkarrekin trapatxoan ibiltzen dira, gaur utzidazu eta bihar utziko dizut nik, baina saltzen ez. Gezurra da nire etxea trafikatzailerik dela denik. Nire semea trafikatzailerik? Drogazalea dela esan behar da, eta hori Arrasateko herri guztiak daki, aspalditik gainera. Nire semea trafikatzailerik balitz ez lioke amari eskatzen dion dirua eskatuko, kontsumitzeko adina behintzat izango luke eta. Etxean aurkitu ziotena bere kontsumorako zen, bost bat egunerako edo, bidairik ezin du egin eta, plaketak oso baju izanik oso gaixo jartzen da. Aldiko zenbat eta gehiago erosi, beretzat hobeto. Mila dosis? Bai, alez ale ere egin daitezke dosiak. Gainera, astirik ere ez, eguerdiko ordubietan jaiki, bazkaldu, eta pintxatu ondoren bostetan lanera joan eta bederatzietan irten eta hamarretarako etxera etortzen zen.

— **Berak zer esaten du drogari buruz?**

— Sartuta dagoena sartuta dagoela eta sartzear dudenak sartu ez daitezen edozer egingo lukela. Bere lehengusuari esaten dio, porro bat erretzen ikusten badu, txikitu egingo duela. Gainerantzean, gurean ez da drogaz hitzegiten, lehen esaten genion, begira nola gauden, sendatu zaitez, etxetik bota ere egin izan du aitak eta ibili da tratamenduan ere. Baina orain badakigu hala behar duela eta ez duela beste irtenbiderik.


— **“Oso gaixo dago eta espetxean hil egin daiteke”**

Erguin eskolan Kultur Astea

Joan zen urtean eskola lako 10. urtebetetzea izan zen eta ospatzeko kultur aste bat antolatu zuten. Izandako arrakasta ikusiz eta kultur ekitaldien eskasia kontutan hartuz, aurten ere pareko zerbait eratu dute datorren 9an hasi eta 14a bitartean izango den kultur asteen. Eskolako kontseilu batzordeak aztertzen ditu kasu bakoitzean dauden posibilitateak baina batez ere irakasle eta gurasoen elkarteak zehazten ditu azken puntuak. Eskolako eguneroko martxan tartekatzen dira ekitaldi hauek, gehienak arratsaldez.

Ekitaldi ugari

Egitaraua ume, guraso, herritar eta bereziki auzokoentzat dago zuzenduta. Arrasateko eskola desberdinen koordinazioa da lortu nahi dena, koordina-



zioa kultur ekintzetan. *“Eskolan ez dira lau ormetan ematen diren klaseak bakarrik ikusi behar, beste hainbat ekintza ere gertatzen dira; hoiiek ezagutzeko erlazio lazoak lortu beharko ditugu. Baina alor honetan ez da ezer lortu oraindik”*. Aurrekontu aldetik 160.000 pezetakoa da. Eskolako dirutik irtetzen da zati bat

eta laguntza eta subentziotatetik bestea: udaltik eta auzo alkatetzatik. Egitarauaren barruan gurasoei zuzenduriko ekitaldi batzuk izango dira: *“Ikasketetan seme-alabei nola lagundu”* eta *“Osa-suna eskol-adinean”* hitzaldiak. Bestalde, umeentzako ekitaldien artean

hona adibide batzuk: ipuin kontakizuna, antzerki eta mimo saioa, jolasak eta kirolak. Bukatzeko, larunbat goizean txalaparta, gimnasia erritmikoa, karatea, irratizaleak eta eskolako tresneria, gelak eta lanak izango dira ikusgai.

LANDALUZE

ANATE-PRODUKTUAK
TERRINE DE FOIE BLOC
PARFAIT MACBET CONFIT
ETXEN EGINIBO
ANATE-URDITZPIBOK

Iturriotz, 7 ARRASATE Tfnoa: 79 14 86

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
 Arrasate

◆ Ibai-arte elkartearen logotipo lehiaketa

Ibai-arte erdialdeko merkatarien elkarteak anagrama aukeratzeko, logotipoen lehiaketa-deialdia egin du. Oinarri eta arau bezala Deba Garaiko edozeinek parte hartu ahal dezake. Teknika libre a izanik, erabili dituen erizpide-argumentuak aipatu beharko ditu egileak. Lanak Markiegi dendara bidali beharko dira martxoaren 31 baino lehen. Irabazleak 40.000 pezetako saria eskuratuko du, bere izena komunikabideetan agertuz.

◆ Argazki rally arrakastatsua

Haratuzteetako jaiak gaitzat hartuz, argazki rallya burutu da Arrasaten. Asteazkenean entregatu ziren Laso, Epelde eta Ikatz dendetan partehartzaileen karreteak, guztira 43. Datorren asteartean arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara partehartzaile guztiak Monterronen aurkeztu beharko dira bakoitzak 8 argazki aukeratzeko eta hortik irtetzen diren guztiekin erakusketa bat izango da datorren 12tik 22ra. Irabazlearen izena 12an bertan ezagutuko da.



Jesus Egidazu

Sta. Ageda koruetako beteranoa


Jesus Egidazuk azken 45-46 urteetan ez du hutsik egin Santa Agedako bezperetako koruetara. 62 urteko gizon hau, bere koadrilarekin hasi zen kantuan eta ordutik koruen barruan aldaketa ugari eman diren arren, ohiturari ez dio inoiz utzi eta ezta uzteko asmorik ere.

— Zer dela eta horrelako fidelotasuna Santa Agedako koruei?

— Ez dakit ba. Juanito Arzamendik poliki-poliki koadrilakook eraman gintuen Santa Ageda koruetan kantatzera eta ordutik hor nabil, zaletasun handiarekin gainera. Hasieran Juanito pianoan jartzen zen eta banan-banan kantarazi zigun, tenoreak, grabeak edo zer demontre ginen ikusteko. Gero, 9ak aldera entsaiatzen hasten ginen.

— Ohitura asko aldatu da?

— Gauza batzuetan bai, baina oinarrian gauza bera da. Lehen egun osoa oinez pasatzen genuen, baserriz baserri; orain, aldiz, toki batetik bestera mugitzeko autoa erabiltzen da. Lehen betiko lagun koadrilan ateratzen ginen, orain koadrila hori zabalagoa



da... baina azkenean, kantatzen diren bertsoak berberak dira eta ohitura bera ere bai. Hori bai! lehen, egun osoa oinez pasatzen genduenan gauerako jo ta apurtuta bukatzen genuen.

— Eta noiz ondoen? lehen edo orain?

— Beno, bietan ondo.

▼
"Oinarrian Santa Agedako koruen ohitura ez da ia aldatu"

Lehen gazteagoak ginen eta gainera koadrila aparta ginen, batez ere juerga egiteko, etxe bakoitzeko onena seguruen. Santa Ageda bezperaz galantak botatakoak gara, baina kantatzeko orduan beti serio. Orain ere, gustora nabil, nahiz eta koadrilako giro hura ez bizi.

— Diru aldetik?

— Orain jendeak emateko aukera hobea dauka, lehen ez zegoen dirurik.

— Orain entsaio beharrik izaten duzu?

— Egia esan, ez. Aspalitik gabiltzan bezperan agertzearekin nahikoa izaten dugu, zer nolako koadrila garen ikusteko. Jende berriak entsaiatzen du, aste bat edo pasatzen du horretan.

— Jende berria ikusita gustora?

— Oso, horrela niretzat inportantea den ohitura zahar bat ez da galduko eta. Gustoa ematen du gazteak atzetik badatozela ikusteak, gainera ikasitako jendea da.

— Inoiz lagatzeko asmorik?

— Ez, ahal dudan arte jarraitzekotan nago, ohiturari eutsi eta ea urte askoan horrelaxe den.

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24

Aste gazte

Estatistiken arabera, egun, hezkuntza-sistemaren maila guztietan emakumearen presentzia %50ekoa da.

Honez gain, gizonek baino emaitza akademiko hobeak lortzen omen dituzte.

Baina, hala eta guztiz ere, 30 urtetik beherako nesken langabezia tasa, adin bereko gizonena baino 8'5 aldiz handiagoa da.

Elena Pla ("Entre juvenes" aldizkarian)

Bekak

• Leioako Unibertsitatean Informazio-Zientzietan lizentziatuentzako bekak, "Bilbao" udal aldizkarirako.



1989tik aurrera lizentziatu direnentzat. Iraupena, 12 hilabete. Dirulaguntza, hileko 75.000 PTA. Epea: martxoak 18.

• Erromako Historia, Arkeologia eta Arte Ederretako Akademia espainarrean aritzeko bekak. Arloak: literatura, pintura, eskultura, arte-historia, arkitektura, argazkigintza, antzerkia eta arte eskenikoak, zinea, arte grafiko edo aplikatuak, arkeologia, dokumentazioa, ... Epea: martxoak 20 (92-02-20 BOE).

• Abokatu gazteentzako bekak. Gaia: Bretainia Handiko Zuzenbidezko Sistema. Baldintzak: lizentziatura, ingelesa menperatzea eta bi

urtetako esperientzia. Epea: maiatzak 8.

Ikastaroak

• "Kalitate tekniko eta didaktikoa eskolako kirolean" ikastaroa, Gipuzkoako Diputazioak antolatua. Egunak: apirilak 11 eta 12. Matrikularen prezioa: 2.000 PTA. Izenemateko epea: martxoak 27.

Lehiaketak

• Donostiako 27. Jazzaldia iragartzeko kartel-lehiaketa. Saria 100.000 PTA eta trofeoa. Lanak aurkezteko epea: martxoak 27.

• "Gerardo Diego"

poesia-lehiaketa. Gazteleraz. Gai librea. 14 eta 60 lerro bitarteko lanak. Saria: 140.000 PTA eta oroigarria, eta 50.000 PTAko akzesita. Lanak aurkezteko epea: apirilak 6.

Hitzaldia

• Martxoaren 13an (ostirala) Astrologiari buruzko hitzaldia, Bergarako Errotalde Kultur Etxean, arratsaldeko 7.30etan.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

ETXEBIZITZAK

- Gela alokatzen dugu lkasleen etxebizitza baten ekainetik aurrera. Tfnoak: 74 00 37 eta (94) 630 85 40 / 684 16 65.
- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Logela bat libre dago. Dei egin 81 66 24 tfnora.
- Hiru pertsonentzako etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tfnoa: 79 48 11. Oskar eta Blanka.
- Etxebizitza salgai. Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.

LANA

- 1. eta 2. REMeko klase partikularrak emateko prest (bereziki matematika, kimika, eta fisika). Dei egin 79 79 14 tfnora. Sergio.
- Klase partikularrak ematen ditugu: Oinarrizko Heziketa Orokorrean eta euskara maila guztietan. Tfnoa: 77 04 98.
- 7. mailako matematika eta hizkuntza klase partikularrak behar dira. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 20 40 tfnora.
- Emakume euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Dei egin 7.30etatik aurrera 79 63 29 tfnora.
- Bi oheko gela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Errusierako klaseak ematen dira. Dei egin 79 78 75 tfnora.
- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. (Bai erdaraz eta baita euskaraz edo ingelesez ere). Tfnoa: 79 62 89.
- Aretxabaletako Dis-Tel oihaldendak esperientziadun jostuna behar du. Dei egin 79 48 49 tfnora.

- Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke, orduka edo egun guztiz. Tfnoa: 79 54 03.
- Neska bat behar da ingelesa erakusteko. Tfnoa: 77 10 59.
- Esperientziadun pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 77 10 59.
- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu neska gaztea. Tfnoa: 79 99 17. M^a Jesus.
- Aretxabaletan neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 77 85.

SALEROSKETAK

- Yamaha SR 250 motorra salgai. 17.000 kmkin eta 230.000 PTAn. Dei egin 79 62 56 tfnora Betatik aurrera.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra salgai. Berria. Tfnoa: 79 15 54.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra eta ur-berogailua salgai. Berriak. Tfnoa: 77 06 70.
- Marshall anplifikadorea salgai. Transistore "combo" modeloa 100 watt. Urtebete baino gutxiagokoa. Oso prezio onean. Dei egin 79 36 83 tfnora.
- Alpen Kreuzer Allure modeloko kanping erremolke-denda salgai. Tfnoa: 79 80 85.
- Gezi moduko kitarra elektrikoa distortsio eta guzti salgai. (Gorria eta beltza). Baita pedala eta Aria markako anplifikadorea ere (berria dago), 50 W. AG-35 R modelokoa. Dei egin 79 39 92 edo 945 - 26 28 01 tfnoetara.
- Alpen Kreuzer Super GT kanping erremolke-denda salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 945 - 44 50 43 tfnora.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailua salgai. Dei egin 79 57 93 tfnora egunez edo 79 82 28 gauzez.
- Monty markako trial-sin bizikleta salgai. Hiru urte 1' erdi ditu eta oso egoera onean dago. 35.000 PTA. Tfnoa: 79 01 94.

- la berria dagoen arkol-izozkailua eta urte 1' erdiko pixu bat eta kutxa erregistradorabat (3 urtekoa) saltzen dira prezio negoziagarrian. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatara bitartean 94 - 658 34 94 tfnora.
- Eski alpino egiteko bota pare bat salgai. 43a berri-berriak, bi hilabete besterik ez dituzte. Tfnoa: 76 38 72.
- Mendiko Camet bota (44a) pare bat salgai. Erabili barik eta oso merke. Tfnoa: 76 24 64. Joxemiel.
- Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke. Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- la berria dagoen akordeoia salgai. 120 baxu. Beltza. Dei egin gauzez 79 80 91 tfnora.
- Txakurkume politak salgai 5.000 PTAtan. Oso politak dira. Tfnoa: 79 90 87.

DENETARIK

- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnoa.
- Buzoneoa egiteko prest. Enpresa eta erakundeen iragarkien banaketa egiten dugu. Dei egin goizez 79 35 02 tfnora.
- Ehiza-txakur bat erregalatuko nuke, txeritatuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- Otsailaren 4ean Urkulun eguzkitako betaurrekoak galdu nituen bostak aldera. Inork aurkituz gero, dei dezala 79 21 50 tfnora.
- Urrezko kate bat topatu dugu kalean, zureabada dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- Egunero Bilbora joateko kotxe baten tokia behar dut. Tfnoa: 79 31 47.
- Musika talde afizionatu batek teklista behar du. Tfnoa: 73 01 17,

ARRASATEN HILDAKOAK

Raimundo Lazaro Holguera,
otsailaren 26an. 81 urte.

Jose Jauregi Pagoaga,
otsailaren 28an. 85 urte.

Vicenta Urbistondo Auzmendi,
otsailaren 28an. 81 urte.

Elisa Garcia Jimenez,
otsailaren 28an. 84 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Rosario Madinabeitia Sebero Altubeko kioskokoa



- **Erosleak, umeak ala nagusiak?** Umeak, nahiz eta batzutan okerragoak izan, nahiago ditut.
- **Pastelak ala karmeloak?** Niretzat bat ere ez. Karmeloak katarroa dudanean edo baina bestela ez naiz gozozalea.
- **Erregaliz beltzak ala gorriak?** Nire gustorako beltzak.
- **Makinaz ala eskuz idaztea?** Eskuz askoz hobeto manejatzen naiz.
- **Zuhaitza ala lorea?** Lorea nahiago dut, txikiagoa delako eta edozein tokitan jar dezakezulako.
- **Erastuna ala eskuturrekoa?** Horrelako gauzak denak gustatzen zait baina...
- **Ura ala ardoa?** Janariekin ardo pizkat, baina bestela egunean zehar ur asko edaten dut.
- **Zapatak ala zapatilak?** Komodoagoak zapatilak dira baina txukunago zapatak gelditzen dira.
- **Esnea ala zumoa gozaltzeko?** Nik beti kafesnea hartzeko ohitura dut.
- **Igeriketa ala mendia?** Igeritan ez dakit, horregatik hobeto mendi buelta bat.
- **Etxea ala hotela lo egiteko?** Etxea hobeto, nire betiko ohean.
- **Kafea hartzeko laguna ala gizona?** Gizonakin ez behintzat, laguna ona bada berarekin.
- **Zirkoa ala jaialdia?** Bertso edo trikitixa jaialdia bada gustatzen zait, baina rocka ez.
- **Igandean zinera ala pasiatzera?** Pasiatzera, baina denbora dudanean, hau da gutxitan.
- **Umeak zaindu edo etxekolanak egin?** Etxekolanak egin. Zazpi ume izan ditut eta nahiko izan dut.
- **Bokadiloa ala sandwich-a?** Bat ere ez. Janaria, hobe platerekoa.
- **Tenisa ala golf-a?** Kiroletatik bat ere ez zait gustatzen, eta bi hoiak gutxiago.

Bertsotan

Intsumisioa

1
Dakizuenez aurreko hilean ederra egina digute hiru euskaldun gazte insumiso epaiperatu dituzte militar jende horren legeak ez dituzulako bete kulparik gabe pasa itzazu gartzelan pare bat urte!

2
Soldaduzkara joan direnak batzuk ziren ezagunak insumisoak dira, ordea, nire egizko lagunak antimilitaristaz aparte nola garen ezagunak Euskadiko gure entsaladan sobran daude azeitunak.

OIER SARASUA



**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



Federiko Leibar Axpe, 1921



Charlot eta Doña Almeja, 1931

H

aratuzteak ez dira atzo goizeko kontua. Badakigu jakin garai baten debekata ere egon zirela, baina

aurretik ere izaten zituzten ideia polit askoak mozorroa bilatzeko. Argazkiko pailazoa Federiko Leibar Axpe da, Txomin Txiki izenez ezagutzen den familiakoa, eta 1921eko San Balentin egunean atera zioten erretratu. Gaur egun Federiko Madriden bizi da.

Beste argazkikoak bere anai arrebak dira: Liteo eta Mari Tere Leibar Axpe, eta argazkiaren atzekal-

deko eskaintzan zioen bezala "Charlot" eta "Doña Almeja" jantzita, 1931ko ihauterietarako aukeratu zuten

mozorroa jantzita. Liteo gaur egun Donostian bizi da eta Mari Tere berriz Torremolinos inguruan.

BIONA


Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.

EBRO NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Hizkuntza bi duena
9. Arrasateko auzoa
10. Gainekalde
11. Musika nota
12. Zegoen
13. (Ald.) Sail
15. Eta
16. Lur
17. Izaera
18. Emakume izena

Bertikalak

1. Andrea
2. Motza ez dena
3. Erran
4. (Ald.) Langile Abertzaleen Batzorde
5. (Ald.) Modu atzizkia
6. Txirrindularien zaindari
7. Adimendu
8. Nafarroako ibilgailuetan
13. (Ald.) Behe Nafarroako udala
14. 1. eta 5. bokalak
16. (Ald.) Gurutze ertzean
17. (ald.) Nikela



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Polizi akademia eroa 2

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: martxoak 7, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Telebegi

Gaur, ostirala, emisio berezia

Zeresan ugari eman du aurtengo Play-Back jaialdiak. Hori dela eta, gaur, ostirala, 10etatik aurrera berriro errepikatuko dugu ordubeteko laburpena. Ondoren, 11.15etan, ATBk asteartean burututako Haratuzteak 92 programa errepikatuko dugu, parrandan ibili zinetenok jai-giroa gogoratzeko beste aukera bat izan dezazuen. Igandean ere hortxe izango dituzue aukeran bi saio hoiak, arratsaldeko 7.15etatik aurrera.

Aipatutakoez gain, noski, gure ohizko saioak: ostiralean, 8etatik aurrera informatiboak, eta 9.15etan ostiral musikala. Igandean, berriz, 9.15etan Mondragol.

Programazioaz

Albistegia 3 aldiz errepikatzen du ATBk egunean, filme edo pelikula bera berriz, 5 bider ematen da astean zehar; errepikapen lartxo, edo?

Estruktura honek ikuslearengan lortu nahi denaren kontrako eragina sortarazten duela iruditzen zait. Ordugegi konkretuan finkatuak dauden programak ikusteko zailtasunak duten pertsonen aukerak zabaldu nahi dira; konforme. Herri telebistak behar du izan, nolabait interes publiko-ra zuzendutako medioa, hortxe du eta izaera beraren arrazioa.

Baina, telebista eta orhar mass-mediaren erakargarritasun nabarmenatariko bat freskotasun eta bapatekotasuna da. Errepikaldiek, ikusle goa banatu egiten dute, eta banatzen den heinean gutxitu, edo gutxienez dibertsifikatu honek publizitatean sortzen duen eraginarekin. Era berean, ATBko programazioaren muina 9etatik aurrera ematen da, beraz, nire ustez horra bideratu beharra dago ikusle goa. Honez gain, nire ustez errepikaldiek nolabaiteko seriotasun faltaren irudipena sortarazten dute ikusle goerengan. "Ez daukate zer eskainirik" edo "ATB pizten dudun bakoitzean gauza bera dago".

Ondorioa? informatibo bakarria egunean; 9etako, 8etan aurrerapena. Pelikulak berriz bi edo hiru astean ezberdinak, eta gainontzeko produktu audiobisualak beste egunetan (Elhuyarren programak, kortoak edo marrazki bizidunak esaterako).

ANDONI URZELAI

ATBketan

Anne Igartiburuk zuzendutako lehiaketa umoretsua

Ostegunetan
9.15

Asteko filmea

Ke arteko egunak

Egunero
9.50etan

Txatxaran

Tunantes del Norteko lagunak

Asteazkenean
9.15etan

Programazioa

8

IGANDEA

- 7.15. *Play-Back Jaialdia 92*.
- 8.30. *Haratuzteak 92* ATBk asteartean burututako saioaren errepikapena. Parrandan ibili zinetenok jai giroa gogoratzeko beste aukera bat.
- 9.15. *Mondragol*. Mondra-Pasaia partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardurapean.

9

ASTELEHENA

- 8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.
- 9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko kirol-munduari errepaso, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribesalgorekin.
- 9.50. *Asteko zinea*: Ke arteko egunak.

10

ASTEARTEA

- 8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako notiziak.
- 9.15. *Erreportaiak*. Aste honetako gaiak: Martxoak 8, emakumearen eguna, eta larunbatean kiroldegian burutuko den Al Andalusen jaia.
- 9.50. *Asteko zinea*: Ke arteko egunak.

11

ASTEAZKENA

- 8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia.
- 9.15. *Txatxaran*. Maider Egués-ek zuzendutako elkarriketa saioa. Aste honetako gonbidatuak: *Tunantes del Norteko* lagunak.
- 9.50. *Asteko zinea*: Ke arteko egunak.

12

OSTEGUNA

- 8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.
- 9.15. *ATBketan*. Anne Igartiburuk aurkeztutako lehiaketa berri, umoretsua eta ikusgarria.
- 9.50. *Asteko zinea*: Ke arteko egunak.

13

OSTIRALA

- 8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Informatiboak.
- 9.15. *Ostiral Musikala*: Marta Izagirik zuzenduta, Arrasate Musikali eskainitako saioa.
- 9.50. *Asteko zinea*: Ke arteko egunak.

SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA



GURUTZE URIBARREN.
25 urte andereño.



ANA MARI ARANA.
25 urte andereño.



MARIA LUISA LIZARRALDE.
25 urte andereño.

1967-1992

ORDUTIK KALITATEZKO IRAKASKUNTZA
EUSKARAZ!



MATRIKULA EPEA ZABALIK!

• **KALITATEZKOA.**

Irakaskuntzaren erreformari aurre eginez 16 urterarteko hezkuntza.

• **AUZOAN.**

12 urte arte ez duzu auzotik irten beharrik izango.

• **EUSKARAZ.**

25 urte daramatzagu euskaraz irakasten.



Jakina!

Gazteluondo, 4
Tfnoa: 79 26 40
ARRASATE